



Anaitasuna Ikastola HLHI Urteko Planaren Memoria 2014-15



2014
2015

1. Sarrera eta justifikazioa <i>introducción y justificación</i>	X
2. Helburu orokorrak eta jardueren ebaluazioa <i>evaluación objetivos generales y planificación de actividades</i>	
2.1. IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena <i>desarrollo y grado de logro de los objetivos propuestos en el PAC</i>	X
2.2. Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa <i>evaluación de los procesos de aprendizaje del alumnado</i>	X
3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa <i>evaluación del programa de actividades docentes</i>	
3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa <i>evaluación del programa de actividades docentes ordinarias</i>	
3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak <i>aspectos de organización y funcionamiento.</i>	X
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak <i>experiencias, programas y proyectos</i>	X
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala <i>formación y desarrollo profesional</i>	X
3.1.4. Irakasleriaren koordinazioa <i>coordinación del profesorado</i>	X
3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programaren ebaluazioa <i>evaluación del programa de actividades docentes complementarias</i>	X
4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa. <i>evaluación del plan de actividades extraescolares</i>	X
5. Eskolako zerbitzuen ebaluazioa <i>evaluación de los servicios escolares</i>	X
6. Ekonomi-kudeaketarako planaren ebaluazioa <i>evaluación del programa de gestión</i>	X
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa <i>evaluación del plan información a la comunidad educativa</i>	X
8. IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa. <i>evaluación del desarrollo del desarrollo del plan anual</i>	X
9. Ondorioak eta hobekuntza proposamenak. <i>conclusiones y propuestas de mejora</i>	X
10. Eranskinak <i>anexos</i>	X

1. Sarrera introducción

- Ikasturteko planaren garapenean eragina izan duten aspektu edota faktoreak *Aspectos y/o situaciones que han determinado el desarrollo del plan anual.*

-

- Egiteko prozedura eta lan-metodologia *Proceso de elaboración y metodología utilizada*

Hemen azaltzen ditugu memoria antolatzearekin, egitearekin, idaztearekin, onartzearekin eta hedatzearekin lotuta dauden zenbait zeregin, eta haietan esku hartu duten pertsonen eta taldeen berri ere ematen dugu.

ZUZENDARITZA TALDEA:

- Zuzendaritza taldeak Urteko Memoria egiteko jarraitu behar den prozesua zehaztu eta horren berri ematen du:
*Urteko Memoriaren edukiei buruzko eskema egiten du.
Zer taldek parte hartuko duten zehazten du.
Taldea bakoitzak zer funtzio eta zeregin izango dituen zehazten du.
Parte-hartzea bermatuko duten baliabideak zehazten ditu
Jarduera bakoitzerako epeak egutegi batean zehazten ditu.*
- Informazioa biltzea eta hartaz baliatzea.
- Memoria egiteko parte-hartzea koordinatu eta dinamizatu.
- IUPi dagokionez, zuzendaritza taldeari dagozkion helburuak ebaluatzea.
- Zenbait iritzi formulatzea.
- Ondorioak azaltzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Ekarpenguztiak oinarri hartuta, sintesi bat egitea, hurrengo ikasturterako IUP egitean kontuan hartu beharreko hobekuntza-iradokizunak azpimarratuz.
- Behin betiko memoria idaztea eta haren berri ematea, hura eskola-elkartearen nahiz administrazioaren eskura jarritz.

OOG:

- OOGren beraren funtzionamendua ebaluatzea.
- Memoria osoa aztertzea eta onartzea.
- Ondorioak azaltzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.

IRAKASLEAK:

- IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.
- Irakasle bakoitzak bakarka parte hartzeaz gain (norberaren ikasleak, norberaren irakasle lana ebaluatuz...), irakasle-taldeak zikloen eta departamentuen bidez ere parte hartuko du: ikasgelarako programazioa, ICPrekiko egokitzea, gorabeherak, ikasleen emaitza akademikoen azterketa, NCE. Hobekuntza proposamenak ere egingo dituzte.

KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA:

- Memoria egiteko lanetan parte hartzea, datu adierazgarriak aztertzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Memoria egiteko prozesua dinamizatzea zikloetan eta batzordeetan.
- IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.

GAINERAKO BATZORDEAK:

- IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.

IKASLEAK:

IUParen memoria egiterakoan ikaslegoari ikastetxearen funtzionamenduari buruzko eta euren parte hartzeari buruzko balorazioa egiteko eskatu zaio.

GURASO ELKARTEA:

IUParen memoria egiterakoan guraso elkarteko partaideei ikastetxearen funtzionamenduari buruzko eta euren parte hartzeari buruzko balorazioa egiteko eskatu zaie.

- Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak** *Participación y aportación de datos de la comunidad*

	bai	ez	zer-nola qué-cómo
Klaustroa <i>clastro</i>	X		
Batzorde pedagogikoa <i>Comisión Pedagógica</i>	X		
Zikloetako taldeak <i>Equipos de ciclo</i>	X		
Mailetako taldeak <i>Equipos de nivel</i>			
Departamentuak <i>Departamentos didácticos</i>	X		
Proiektuen arduradunak <i>Responsables de proyectos</i>	X		
Zikloetako koordinatzaileak <i>Coordinadores/as ciclos</i>	X		
Ikasleriaren ordezkariak <i>Delegados/as del alumnado</i>	X		
Familien ordezkariak <i>Respresentantes familias</i>	X		
Admin. eta Zerbitzuen langileria <i>Personal Adm. Serv.</i>	X		
Zuzendaritza taldea <i>El equipo directivo</i>	X		
Entresak-erakundeak <i>Empresas-instituciones</i>			
Beste batzuk <i>Otros (identificar quiénes)</i>	X		

Hezkuntza komunitatearen ekarpenak jasotzeko Memoriako tresnak erabili ditugu.

- Datorren ikasturtean jarraipena izango duten urteko planaren aspektuak** *Aspectos del plan anual que deberán tener continuidad en el próximo curso.*

2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

TALDEA GRUPO ZENTROKO HELBURU OROKORRAK (ZUZENDARITZA TALDEAK)

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
HOBEKUNTZA PLANAREN GARAPENA	Irakurmen-ulermen dimentsioa hobetzeko estrategia ezberdinak erabili irakasgai ezberdinetan (ikus “Hobekuntza jardueren Planifikazioa”)	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa-ulermena lantzeko estrategia batzuk erabili izan dira. - Estrategia hauekin ataza batzuk prestatu dira. - Asteroko irakurketa saioak , maila batzuetan sistematikoki burutu dira baina beste maila batzuetan esporadikoki. - Irakurketa-ulermen dimentsioko azpikonpetentziak garatzeko ulermen galderak ez dira egokitu 	<ul style="list-style-type: none"> - Ziklo guztietan erabiliko diren estrategiak adostu. - Irakurketa saioak antolatu mailaka: <ul style="list-style-type: none"> o Denboralizioa (asteko ordutegiaren barruan txertatu irakurketa saioen programazioa egin behar da). o Atazak: burutuko diren ekintzak eta hauek burutzeko metodologia (taldekatzeak, egiturak..) - Azpikonpetentzien lanketa ziurtatu landu behar diren testuetan (mota ezberdinetako galderak)
	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia ezagutu eta detektatu gutxi lantzen diren dimentsioak.	Ez dugu landu gai hau. ez dugu izan astirik, zeren Txanela materialaren ezagutzak denbora asko eraman digulako.	Datorren ikasturtean ere ez dugu ikusten lan hau burutzeko denborarik
ICP-a GARATZEN JARRAITU	LH-ko 2.mailatik 5. mailara arteko TXANELA materialen ezagutza (arloan globalizatua eta gaztelania arloan) eta hautaketa. <ul style="list-style-type: none"> - Proiektu bateratu bakoitzean jorratu beharreko ezinbesteko jardueren hautaketa egin ikasgelan praktikan jarri ondoren(erregistratu programazioan) - Ebaluatu beharreko jarduerak erabaki. 	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektu bateratu bakoitzean jorratu beharreko ezinbesteko jardueren hautaketa egin da. - Ebaluatu beharreko jarduerak ez dira erabaki - 2.zikloa: gaztelania arloan ekoizpena ez dago ondo garatuta 	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektu bakoitzeko programazioak berrikusi eta behar diren egokitzapenak egin. - Proiektu bakoitzean ebaluatu beharreko jarduerak erabaki - Maila bakoitzean landuko diren testu motak adostu (euskara eta gaztelanian). Zein proiektutan landuko diren. Testu mota hauek lantzeko TXANELAK dituen hutsuneak antzeman eta programazioan erregistratu, aurrerago (2016-17 ikasturtean)) egokitzapen lanak egiteko. - 2.zikloa: gaztelanian landuko diren testu motak zehaztu eta prestatu (2016-17 ikasturtean)

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Gatazkak kudeatzeko oinarritzko protokoloa jakitera eman eragile ezberdinei (irakasleak eta begiraleak)	Ez da egin.	Ikasturte hasieran egin (Irakasleen Harrera Planaren barruan)
	Ikastetxeko hezkidetzaren plana diseinatu eta martxan jarri. <ul style="list-style-type: none"> - Aurtengo ikasturtean gai honen inguruko ikastetxeko sentsibilizazio eta diagnostia egingo da. - Martxoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna), azaroaren 25a (emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna) eta maiatzak 17a (homofobia eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna) bereziki ospatzeko jarduerak antolatu. - Eskola liburutegirako liburuak erosterakoan, gai hau jorratzen dutenak aukeratu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aurtengo sentsibilizazio fasea egin da bakarrik. - Egun hauek ospatzeko materialak banandu dira zikloetan eta erabili dira. Jarduera hauek Tutoretza saioen denboralizazioaren barruan txertatu dira. - Ez da egin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Diagnostikoa egin behar da. - Berritzeguneak antolatzen duen Hezkidetzaren mintegian parte hartu (Hezkidetzaren arduraduna) - Eskola liburutegirako liburuak erosterakoan, gai hau jorratzen dutenak aukeratu.
IKASTETXKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUNTZA	Aurtengo ikasturtean IHP berritzeko bi pauso hauek garatuko dira: <ul style="list-style-type: none"> - AURKEZPENA: OOG eta klaustroari - SENSIBILIZAZIO FASEA: klaustroa, OOG eta hezkuntza komunitatea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datorren ikasturtean burutu beharreko fasea erabaki ikasturte hasieran.
IKASTETXKO HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DISEINUA	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuko arduradunak formakuntza saioetan parte hartu. - Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua garatzen hasi. 	<ul style="list-style-type: none"> - Formakuntza proiektuetan parte hartu du proiektuko arduradunak. - Aurtengo sentsibilizazioa eta diagnostikoa egin dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza Proiektua garatzen jarraitu.
ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU.	Ikaskuntza kooperatiboaren ezagutza eta aplikazioaren aldeko lehen urratsak eman	<ul style="list-style-type: none"> - L.H-ko tutore guztiek parte hartu dute ezagutza fase honetan. - Proiektuko koordinatzaileak berritzeguneak antolatutako IK-KI mintegian parte hartu du. - Ikastetxean IK-KI batzordeak koordinatu ditu burutu beharreko ekintzak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datorren ikasturtean "Generalizazio fasea" burutuko da. - Mailako/zikloko lana antolatzeko astero eskusiba ordu bat erabiliko da. Saio honetan zikloko irakasle guztiek parte hartuko dute (tutoreak eta espezialistak)

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
<p>ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - HIBP-k zertarako, norentzako, nola, nork eta noiz bete behar den zehaztu eta irakasle guztiei jakitera eman (iazko ikasturte bukaerako klaustroan azaldutako erantzunak berrikusi eta azaltzen diren kezka argitzeko eta dokumentu hauek betetzeko behar diren oinarritzko jarraibideak adostu eta ondoren irakasleei azaldu) - Moldatutako eranskinak eta hauek betetzeko jarraibideak Tutoretza Planean txertatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egin da. Baina hainbat kasutan ez da lortu HIBP-n jarraipena egiterik. Ikasturte hasierako bilera burutu da bakarri. - Egin da 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte hasieran zikloetan azaldu dokumentu honen funtzioa. - Dokumentu honen jarraipena egiteko denbora eskaintzen jarraitu. Astero, eskusiba ordu bat honetarako erabiliko da (asteazkenekoa)
<p>IKASTETXEKO IKT PROIEKTUA GARATZEN JARRAITU</p>	<p>Ikasgeletan eta arlo curricular ezberdinetan IKT-en erabilera areagotzeko beharrezko baliabideak antolatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleen IKT formakuntza bultzatu eta ahalbidetu ikastetxean zein ikastetxetik kanpo. - Ikasgeletan IKT-k erabil ahal izateko beharrezko tresnez hornitzen jarraitu. - Irakasleen IKT curriculum adostu: maila/ziklo bakoitzean ikasleek lortu beharreko gaitasun digitala adostu - TXANELA material curricularren “liburu digitalaren” erabilera bultzatu LH-ko ikasgeletan. 	<p>Burututako formakuntzak hauek izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxe barruan : <ul style="list-style-type: none"> o Notebook (berritzeguneko aholkulariarekin) o Ikastetxeko IKT-en inguruko (sarearen antolaketa, ikastetxeko Google Apps-a, Ikastetxeko blog-ari buruzko) oinarritzko formakuntza irakasle berriei. - Ikastetxetik kanpo: <ul style="list-style-type: none"> o Google Apps zuzendaritzarako. o Berritzeguneko mintegiak: Eskola 2.0 eta IKT dinamizatzaileak. <p>IKT tresnen hornikuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 4 ordenagailu berri erosi dira ikasgeletarako. - Arbel digitalak erosita egon arren ez dira ikasgeletan jarri segurtasun neurri egokirik ez dagoelako (lapurketa) - Irakasleen IKT curriculum ez da adostu. Horretarako lehenengo pausoa eman da: maila bakoitzeko arlo curricular bakoitzean IKT-ak erabiliz egiten diren ekintzak erregistratu dira. - Txanelako liburu digitala erabili da. - “Txanelategiko” materialak ere erabili dira. - Matematikan, Erein argitaletxeko plataformako baliabideak erabili dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte hasieran baloratu eta erabaki irakasleen beharren arabera zer nolako formakuntza eskaini, noiz eta nork. - Mintegietan parte hartzen jarraitu: Eskola 2.0 eta IKT dinamizatzaileena. - Berritzegunetik antolatzen diren formakuntzetan parte hartu. - Eskola 2.0 mintegian jorratzen diren gaiak ziklo guztietan zabaldu (antolatu behar da) - Udalaren erantzunaren arabera, ikasgeletan IKT hornikuntza burutzen jarraitu - Ikastetxeko biltegian dagoen material digitalaren erabilera bultzatu. Horretarako ziklo bakoitzean irakasle bati ardura hau eman eta lana burutzeko denbora - Ikasgeletan bultzatu material digital ezberdinen erabilera

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. <i>Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.</i>	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
IKASTETXEKO DOKUMENTAZIOAREN EGUNERAKETA ETA KUDEAKETA	1. Ikastetxeko weborrialdeko informazioa eguneratu: <ul style="list-style-type: none"> - Erdarazko atala osatu - Euskarazkoa eguneratu 2. Ikastetxeko Elkarbizitza Planeko dokumentazioa antolatu dokumentu bakarrean.	<ul style="list-style-type: none"> - Egin da. Ikastetxeko proiektuen atalari buruzko informazioa txertatzea falta da. - Ez da egin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Falta den informazioa txertatu eta dagoena eguneratu.
IKASTETXEKO OBRAK ETA MANTENUA	Azken urteetan konpondu/berritu gabe gelditu diren eskaerak egiten jarraitu.	<ul style="list-style-type: none"> - Teilatua berritu dute. - Hobekuntza batzuk egin dira baina ez onartutako eta eskatutako guztiak. - Sarritan, Udalak markatutako epeak ez dira errespetatzen. 	Behar diren hobekuntza eskaerak egiten jarraitu.

2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

TALDEA GRUPO HAUR HEZKUNTZA

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. <i>Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.</i>	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
Ikasleei irakurketa-ulermen prozesua garatzen laguntzeko beharrezko materialak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urtaroen gaiari buruzko hiztegi orokorrak egitea. 3 urte: Udazkena 4 urte: Negua 5 urte: Uda - Proiektu bakoitzerako sortutako materiala digitalizatu eta jarduera interaktiboak sortu ikasleek erabil ditzaten. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa-idazketa proiekturako materiala digitalizatzen egon gara eta urtaroen bukaturako gabe geratu zaigu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datorren ikasturtean egingo da - Zehazten diren astelehenak errespetatu planean ipintzen diren lanak burutzeko.
Psikomotrizitate gelako erabilera hobetu.	<ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate gelaren erabilerarako adostuta eta idatzita dauden arauak erabiltzaile guztiei jakinarazi. Harrera planean sartu eta psikomotrizitate gelan arauak idatziz jarri. - Psikomotrizitate gelako materiala berritzen joateko eskaera egin (aurrekontua, non eta zer erosi) 	<ul style="list-style-type: none"> - Adostuta egon diren arauak jarri dira baina ez dira bete. - Materiala berritu da baina dagoena asko apurtu da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitate gela Haur Hezkuntzarako bakarrik izatea.
IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA BERRITZEN HASI	<p>Aurtengo ikasturtean IHP berritzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - AURKEZPEN klustroan parte hartu - SENTSIBILIZAZIO FASEA burutzeko proposatutako jarduerak egin 		
IKASTETXEKO IKT PROIEKTUA GARATZEN JARRAITU	<ul style="list-style-type: none"> - IKT-en erabilera areagotzea ikasgelan eta programazioetan txertatu burututako jarduerak. - Irakasle berriei IKT baliabide eta tresnen erabileraren azalpena eman. - Formakuntza: material didaktiko interaktibo berriak sortzeko eta Irakurketa-idazketa proiektuaren barruan txertatzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko proiektu finkoetan IKT-en erabilera txertatuta dago. Arbel digitalak ditugunetik erabilera areagotu egin da. - Egin da - Egin da 	<ul style="list-style-type: none"> - Formakuntza: Emandako materiala eskura izatea.
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Gatazkak kudeatzeko oinarritzko protokoloa martxan jarri		

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
ESKOLAKO HEZKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Ikastetxeko hezkidetza plana martxan jarri. - Aurtengo ikasturtean gai honen inguruko ikastetxeko diagnostia egingo da, berritzegunean hala planteatzen bada. - Martxoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna), azaroaren 25a (emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna) eta maiatzaren 17a (askatasun sexualaren aldeko nazioarteko eguna) bereziki ospatzeko jarduerak antolatu, eta tutoretza planaren barruan txertatu.	<ul style="list-style-type: none"> - Martxoaren 8 a, Azaroaren 25a eta Maiatzaren 17aren inguruan ekintzak egin dira. - Bideo eta ipuinen bidez egun horietako gaiak landu dira ziklo desberdinetan. - Orokorrean balorazio positiboa izan da, martxoaren 8ko jardueretan (Gazte asanbladakoak etorri ziren) eta LH 3ko ikasleak oso gustura eta motibatuak egon dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Data hauek programaketetan finkatu, ekintza desberdinak aurretik prestatu ahal izateko.
ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU	Ikaskuntza kooperatiboa ezagutu eta jarduera ezberdinak burutu.	<ul style="list-style-type: none"> - Pasatutako material desberdinak begiratu dira eta bertan agertzen diren jarduera asko gure tutoretza planean txertatuta daude. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoretzan txertatuta dauden jarduera desberdinak atera eta IKKI-ko plan estrategikoan sartu.
ZIKLOKO DOKUMENTAZIOAREN EGUNERATZEA	Ikasturtean zehar moldatzen, berritzen edo aldatzen diren zikloko dokumentuak eguneratu: Tutoretza Plana, Harrera Planak...		

2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

TALDEA GRUPO LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. <i>Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.</i>	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
Ikasleei irakurketa-ulermen prozesua garatzen laguntzeko beharrezko materialak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - lazko ikasturtean sortutako materiala erabili.(1. maila) - Irakurketa metodologia berriarekin jarraitu. - Maite Oleak utzitako material erabilgarria proiektuetan txertatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Metodologia erabili dugu, txertatu beharrekoak txertatu eta 1. mailan sortutako materiala erabili da. 	<ul style="list-style-type: none"> - 2. mailan, txanelako ba al zenekien ataleko ulermenak moldatu, ulergarriagoak egin daitezten(Maite Olearen metodologia jarraituz) - 1. zikloan, ordu lektiboen barruan testuak moldatzeko tarteak kontuan hartu. - zikloen arteko adostasun batera heldu ulermen estrategiak erabiltzerakoan.
LH-ko arlo curricular ezberdinak proiektu bateratuen bidez lantzeko materialak aztertu eta aukeratu	<ul style="list-style-type: none"> - 2. mailako TXANELA materialaren azterketa egin (arlotan globalizatua): <ul style="list-style-type: none"> - Proiektu bakoitzean landu beharrezko atazak aukeratu. - Proiektu ezberdinetako programazioak adostu (Txantiloak sortu) - 2. mailan: gaztelania arlorako era desberdinetako testuak bilatu. - 1. mailan: Irakurketa-idazketa materiala berri. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eginda 	<ul style="list-style-type: none"> - Txanelako programazioak berrikusi .
IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUNTZA	<p>Aurtengo ikasturtean IHP berrizteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - AURKEZPEN klaustroan parte hartu - SENSIBILIZAZIO FASEA burutzeko proposatutako jarduerak egin 		

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
<p>IKASTETXEKO IKT PROIEKTUA GARATZEN JARRAITU</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zikloko ikasleen IKT curriculum adostu (lortu beharreko gaitasun digitala) - TXANELA material curricularren “liburu digitalaren” erabilera bultzatu ikasgeletan. - IKT-en erabilera areagotzea ikasgelan eta programazioetan txertatu burututako jarduerak. - Irakasle berriei IKT baliabide eta tresnen erabileraren azalpena eman. - Arbel digitalak ikasgelako egunerokotasunean ikasleekin aritzeko eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta erabili. - Formakuntza: material didaktiko interaktibo berriak sortzeko Note Book aplikazioa erabili material interaktiboak sortzeko) - Arlo curricular ezberdinetako edukiak jorratzeko aukera eskaintzen duten interneteko baliabideak ezagutu (hezkuntzarako web orrialdeak), jarduera edo baliabide ezberdinak aukeratu eta arlo curricular ezberdinetako programazioetan txertatu. - Symbaloo sortzen ikasi. - Erein argitaletxeak matematikako Peredaren liburua digitalki erabiltzeko sortu duen plataforma erabili. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleekin egin diren jarduerak erregistratu dira. - Askorik ez dugu erabili. - Erabilitako IKT- ak txertatu dira programazioetan(1. mailan) 2. mailan txanelategia erabili eta hau txanela karpetan adierazita dago. - Kurtso hasieran irakasle berriei, 2 saiotako formakuntza eman zitzaien. - Arbel digitalak ahal izan diren neurrian erabili dira. (1. mailan astean saio batean bi gelak elkartzen ziren irakurketa - idazketa lantzeko. 2. mailan gehienbat tutoretza saioetan eta proiektuak eskatzen zuen momentu puntualetan) - Formakuntza jaso genuen baina ez zen oso erabilgarria izan. - Interneteko baliabideak IKT biltegian daude baina ez ditugu aprobetxatu, begiratzeko denborarik ez dugulako izan. - Symbaloo-a sortuta daukagu. - Deskargatu dugu baina denok ez dugu erabiltzeko aukera izan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hurrengo ikasturtean ikasleen IKT kurrikuluma adosten joango gara. - Gehiago erabiltzen ahalegindu. - Zikloan pertsona bati ordubeteko denbora eman biltegiko materiala aztertu eta tutoreei(irakasle)emateko. Honetarako tutore(irakasle) bakoitzak behar duen materiala adostuko du pertsona horrekin.

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Gatazkak kudeatzeko oinarrizko protokoloa martxan jarri		
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Ikastetxeko hezkidetza plana martxan jarri. - Aurtengo ikasturtean gai honen inguruko ikastetxeko diagnostia egingo da, berritzegunean hala planteatzen bada. - Martxoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna), azaroaren 25a (emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna) eta maiatzaren 17a (askatasun sexualaren aldeko nazioarteko eguna) bereziki ospatzeko jarduerak antolatu, eta tutoretza planaren barruan txertatu.	- Martxoaren 8-ko ekintzak ez genituen egin igandea izan zelako eta ez genuen beste egun baterako programatu. - Besteak egin ziren.	- Datorren ikasturtean kontuan izan eta denak programatu.
ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU	Ikaskuntza kooperatiboa ezagutu eta jarduera ezberdinak burutu. - Txanela karpetan, dagokion proiektuan jasoko ditugu eduki ezberdinekin erabilitako estruktura kooperatiboak	- Eginda	- IK KI metodologiarekin jarraitu.
ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU.	- HIBP-k zertarako, norentzako, nola, nork eta noiz bete behar den ezagutu eta dokumentu hauek betetzeko adostu diren jarraibideak kontutan hartu betetzerakoan. - Kanpoko eragileekin egiten diren bilerak gehitu HIBP-ean.	- Eginda	- Egiten jarraitu.
ZIKLOKO DOKUMENTAZIOAREN EGUNERATZEA	Ikasturtean zehar moldatzen, berritzen edo aldatzen diren zikloko dokumentuak eguneratu: Tutoretza Plana, Harrera Planak...	- Eginda.	

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
HOBKUNTZA PLANAREN GARAPENA (ikus "Hobekuntza jardueren Planifikazioa")	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasgai ezberdinetan Irakurmen-ulermen dimentsioa hobetzeko atazak prestatu, estrategia ezberdinak erabiliz (adierazi non erregistratu diren prestatutako atazak eta non gorde diren sortutako materialak). - Irakurmen-ulermen dimentsioa hobetzeko estrategia ezberdinak erabili irakasgai ezberdinetan (erabilitako estrategien balorazioa egin, zeintzuk funtzionatu dute eta zeintzuk ez) - Asteroko irakurketa saioak antolatu eta burutu: Saio 1 irakur zaletasuna bultzatzeko Saio 2 ikasteko (ikasgai ezberdinetako testuak) - Irakurmen-ulermen dimentsioa hobetzeko, testuetan, behar diren egokitzapenak egin (dimentsio honetako azpi konpetentziak kontutan izanda) 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurmen- ulermen dimentsioa hobetzeko ataza berriak prestatu ditugu eta Txanelako karpeta gorde dira. - Erabili ditugun estrategia guztiak baliogarriak dira, baina ikasleek ez dituzte guztiz barneratu. - Irakur zaletasuna bultzatzeko, ekintzak gehitu dira eta " irakur zaletasuna programazioa" txantiloian txertatuta daude. Irakurketa egunero egiten da. - Hizkuntza komunikaziorako adierazleak txantiloia moldatu. - 1. mailan ulermen batzuk berri dira eta 2. mailan bi testuren egokitzapena egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Barneratzea lortzeko, estrategia hauek erabiltzen jarraitu eta ziklo desberdinekin adostasun batzuetara heldu. - Testuen egokitzapenak egiterakoan hizkuntza komunikaziorako adierazleak kontuan hartu.
HOBKUNTZA PLANAREN GARAPENA (ikus "Hobekuntza jardueren Planifikazioa")	Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia ezagutu eta detektatu zeintzu dimentsio ez diren behar beste lantzen.	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da egin. 	

2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

TALDEA GRUPO LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. <i>Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.</i>	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
LH-ko arlo curricular ezberdinak proiektu bateratuen bidez lantzeko materialak aztertu eta aukeratu	4. mailako Txanelako "Arlo globalizatua" eta "Gaztelania arloa" aztertzerakoan, baloratu ea iazko ikasturtean sortu zen proiektua (¿COMO NOS CUIDAMOS?) TXANELA-ko "Mugi gorputza eta izan ontsa" gaian txerta daiteke.	Ez dugu txertatu, Txanelako gai hori nahiko sakonduta zegoelako.	
LH-ko arlo curricular ezberdinak proiektu bateratuen bidez lantzeko materialak aztertu eta aukeratu	<ul style="list-style-type: none"> - TXANELA materialaren azterketa egin (arlo globalizatua eta gaztelania arloa): - Proiektu bakoitzean landu beharreko atazak aukeratu. - Proiektu ezberdinetako programazioak adostu (irakaslearen gida liburuan) 	Landu beharreko atazak aukeratu ditugu. Gaztelania arloa pobre geratzen da ekoizpen aldetik.	Gaztelanian landuko diren testu motak zehaztu eta prestatu.
Matematikako C.P. garatzen jarraitu	Gelditzen diren frogetan, minimoak neurtzeko ariketak zehaztu.	Minimoak zehaztu dira	Azterketetan minimoak %60 direla ziurtatu.
IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUNTZA	Aurtengo ikasturtean IHP berrizteko: <ul style="list-style-type: none"> - AURKEZPEN klastroan parte hartu - SENTSIBILIZAZIO FASEA burutzeko proposatutako jarduerak egin 	?????	

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
IKASTETXEKO IKT PROIEKTUA GARATZEN JARRAITU	<ul style="list-style-type: none"> - Zikloko ikasleen IKT curriculuma adostu (lortu beharreko gaitasun digitala) - TXANELA material curricularren “liburu digitalaren” erabilera bultzatu ikasgeletan. - IKT-en erabilera areagotzea ikasgelan eta programazioetan txertatu burututako jarduerak. - Irakasle berriei IKT baliabide eta tresnen erabileraren azalpena eman. - Formakuntza: material didaktiko interaktibo berriak sortzeko Note Book aplikazioa erabili material interaktiboak sortzeko) - Erein argialetxeak matematikako Peredaren liburua digitalki erabiltzeko sortu duen plataforma erabili. 	<ul style="list-style-type: none"> -Aurtengo ikasturtean, IKT kurrikuluma adosteko bide horretan zikloko gai desberdinetan erabilitako IKT ekintza desberdinak jaso dira. -Liburu erregulariki digitala asko erabili dugu. - Arte hezkuntzan bitartez IKT-en erabilera areagotzen saiatu gara. - Kurtso hasieran irakasle berriek formakuntza jaso zuten. - Material didaktikoa eskasa izan zen ziklo honetarako. Materiala sortzeko denbora falta. -2. ziklorako ez dago 	<ul style="list-style-type: none"> - Hurrengo ikasturteetan adosten joango gara IKT curriculumara. - Arlo guztietan IKT-en erabilera areagotu eta gidan txertatu.
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Gatazkak kudeatzeko oinarrizko protokoloa martxan jarri	Kasu ezberdinetan protokoloa martxan jarri dugu.	
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Ikastetxeko hezkidetza plana martxan jarri. <ul style="list-style-type: none"> - Aurtengo ikasturtean gai honen inguruko ikastetxeko diagnostia egingo da, berritzegunean hala planteatzen bada. - Martxoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna), azaroaren 25a (emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna) eta ekainaren 28a (askatasun sexualaren aldeko nazioarteko eguna) bereziki ospatzeko jarduerak antolatu, eta tutoretza planaren barruan txertatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egun hauetarako antolatutako ekintzetako materiala erabili dugu. 	
ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU	-Ikaskuntza kooperatiboa ezagutu eta jarduera ezberdinak burutu.	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntza kooperatiboa ezagutu dugu eta proposatutako ekintzak burutu ditugu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hurrengo urteetan jarraitzea proposatzen da.

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU.	HIBP-k zertarako, norentzako, nola, nork eta noiz bete behar den ezagutu eta dokumentu hauek betetzeko adostu diren jarraibideak kontutan hartu betetzerakoan	- HIBP behar izan duen ikasle bakoitzaren jarraipena egin da.	- Jarraitu egiten.
ZIKLOKO DOKUMENTAZIOAREN EGUNERATZEA	Ikasturtean zehar moldatzen, berritzen edo aldatzen diren zikloko dokumentuak eguneratu: Tutoretza Plana, Harrera Planak...		
HOBEKUNTZA PLANAREN GARAPENA (ikus "Hobekuntza jardueren Planifikazioa")	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasgai ezberdinetan Irakurmen-ulermen dimentsioa hobetzeko atazak prestatu, estrategia ezberdinak erabiliz (adierazi non erregistratu diren prestatutako atazak eta non gorde diren sortutako materialak). - Ataza hauek prestatzeko emandako denbora (2. eta 3.zikloetako irakasle batzuek astean saio 1 ordu lektiboen barruan) aprobetxatu. - Irakurmen-ulermen dimentsioa hobetzeko estrategia ezberdinak erabili irakasgai ezberdinetan (erabilitako estrategien balorazioa egin, zeintzuk funtzionatu dute eta zeintzuk ez) - Asteroko irakurketa saioak antolatu eta burutu: Saio 1 irakur zaletasuna bultzatzeko Saio 2 ikasteko (ikasgai ezberdinetako testuak) - Irakurmen-ulermen dimentsioa hobetzeko, testuetan, behar diren egokitzapenak egin (dimentsio honetako azpi konpetentziak kontutan izanda). 	- Programatutako guztia bete da.	
HOBEKUNTZA PLANAREN GARAPENA (ikus "Hobekuntza jardueren Planifikazioa")	Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia ezagutu eta detektatu zein dimentsio ez diren behar beste lantzen.	- HJB-n dimentsio desberdinak landu ditugu. (pertsonearen nortasuna eta duintasuna, ulermena eta errespetua pertsona arteko harremanetan,..)	

2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

TALDEA GRUPO

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOA

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
LH-ko arlo curricular ezberdinak proiektu bateratuen bidez lantzeko materialak aztertu eta aukeratu	<ul style="list-style-type: none"> - TXANELA materialaren azterketa egin (arlu globalizatua eta gaztelania arloa): <ul style="list-style-type: none"> - Proiektu bakoitzean landu beharreko atazak aukeratu. - Proiektu ezberdinetako programazioak adostu (irakaslearen gida liburuan) - Beste material batzuk aztertu 	<ul style="list-style-type: none"> -5. mailako programazioa egin da. -6. mailako hainbat testu aztertu dira eta erabili izan dira. Baita lehenengoko bi proiektuak aztertu ditugu eta programazioa egin da. -5. mailan entzunaldi batzuk eta gaztelareko ulermen testuak txertatu dira programazioetan. 	<ul style="list-style-type: none"> -Datorren ikasturtean 6. mailako programazioa egingo da eta 5. mailako berrikusiko da. -Zikloen arteko adostasuna zein testu mota landu behar diren bakoitzean.
IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUNTZA	<p>Aurtengo ikasturtean IHP berrizteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - AURKEZPEN klaustroan parte hartu - SENTSIBILIZAZIO FASEA burutzeko proposatutako jarduerak egin 		
IKASTETXEKO IKT PROIEKTUA GARATZEN JARRAITU	<ul style="list-style-type: none"> - Zikloko ikasleen IKT curriculum adostu (lortu beharreko gaitasun digitala) - TXANELA material curricularren “liburu digitalaren” erabilera bultzatu ikasgeletan. <ul style="list-style-type: none"> - IKT-en erabilera areagotzea ikasgelan eta programazioetan txertatu burututako jarduerak. - Irakasle berriei IKT baliabide eta tresnen erabileraren azalpena eman. - Eskola 2.0-ko mintegian jorrotutako gaiak praktikan jarri ikasgeletan - Erein argitaletxeak matematikako Peredaren liburua digitalki erabiltzeko sortu duen plataforma erabili. - Formakuntza: Note Book aplikazioa material didaktiko interaktibo berriak ezagutzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da egin. -IKT-en erabilera TXANELA liburu digitalarekin areagotu egin da aurten. Txanelategi erabili izan da. - Ikasgelan erabiltzen diren IKT baliabide eta jarduerak programazioetan txertatu dira. -Irakasle berriei azalpena egin da -DRIVE aplikazioa ikasleekin erabili izan da -Peredaren liburu digitala erabili da gela guztietan. -Formakuntzan parte hartu genuen 	<ul style="list-style-type: none"> -Erabiltzen jarraitu -Hurrengo ikasturtean IKTak programazioetan txertatzen jarraitu -6.mailako liburu digitala (zuriz, emaitz gabe) eskatu

HELBURUAK	EKINTZAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.	Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Gatazkak kudeatzeko oinarritzko protokoloa martxan jarri	Ez da egin	
ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA.	Ikastetxeko hezkidetza plana martxan jarri. - Aurtengo ikasturtean gai honen inguruko ikastetxeko diagnosa egingo da, berritzegunean hala planteatzen bada. - Martxoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna), azaroaren 25a (emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna) eta maiatzaren 17a (homofobiaren aurkako nazioarteko eguna) bereziki ospatzeko jarduerak antolatu, eta tutoretza planaren barruan txertatu.	-Jarduerak bete dira	
